

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktua pertsona guztiek erabili ahal dute, ez dago gizartearen talde batentzat zuzenduta. Gure eskumuturrekoak adin guztietako pertsonak erabili ahal dute, oso erraza delako hau erabiltzea. Adibidez, 80 urte dituen pertsona batek eskumuturra eraman ahal du kalera, eta zerbait gertatzen bazaio, aplikazioa daraman pertsonari dei bat heltzen zaio.

Egia da gure produktua, zehazki, zuzenduta dagoela pertsona nagusientzat, nahiz eta edonork erabili dezan. Demagun 20 urteko pertsona batek larrialdi

batean dagoela eta gure eskumuturrekoa erabiliko duela.

Ondo, baina zihuraski gazte horrek mugikorra edukiko duela eta polizia edo bere familia erraztasun handiagorekin deitu dezake, 80 urteko pertsona batekin konparatuz.



Horregatik, azken pertsona hone, normalean mugikorra ez dutenez eta fisikoki 20 urteko gazte bat baino txarrago dagoenez, egokia izango litzateke gure produktua izatea. Gure eskumuturra oso erraza da erabiltzea, botoi bat sakatu eta berehala geolokalizazioa hartzaile bati bidaltzen dio. Beraz, heldu edo nagusi batek egoera kaskar batean edo egoera larri batean egonez gero, gure produktua ezinhobea izango litzateke.

Beste adibide bat jartzeko, demagun gure eskumuturrekoa daraman pertsonak nahi gabe sakatzen duela botoia. Erabili dugun teknologia prestatua dago bi aldiz botoia sakatzean bidalitako mezua ezeztatzeko. Horrela, nagusi batek nahi gabe jotzen badu botoia, ez litzateke ezer gertatuko.